

Noaia!!



Aginagako ludoteka,
gaztetxoek topagunea



Hiru lagun hauek sortu zuten

Usurbil Futbol Taldea

Duela 10 urte izan zen !!


Jose Luis Zumetarekin solasean izan ginen

1997ko azaroaren 28ko NOAUA!ko aleak zekarrenez, 1996an udalak Espainiako ejertzito-arekin ez kolaboratzeagatik deklaratzera eramanez zuten Joxe Antonio Altuna alkatea. Bestalde, giro bikaina izan zen Alaitz eta Maiderrek frontoian eskainitako emanaldian. Yolanda Arrieta Irungo Hiria literatura saria irabazi zuen eta Aginagako frontoia egiteko asmoa zela eta, Guraso Elkarteak eskolarekiko zuen kezka plazaratzen zuen.

Idoia Torregarai Jose Luis Zumeta margolaria elkarriketatu zuen. Bere ibilbidearen hasieran izandako zailtasunak gogora ekarri zituen. "Orain pinturak beste presti-

jioa du. Orduan, erokeria bezala hartzen zuen jendeak", gogoratzen du Zumetak.

Garai hartan zabaldu berria zen Bilboko Guggenheim museoa, Donostiako Kursaalaz ere asko hitz egiten zen. Pil-pilean ziren batek eta besteek izan zezaketen eragina. Zumetak honakoa zioen: "Nik nahiago ditut alde positibotik ikusi... Arkitektura biak izugarriak iruditzen zaizkit. Bata espresionismo hutsa da, eskultura bat bezalakoa da. Besteak berriz minimalista kutsua du, sinpleagoa da. Hauen eragina ona izango dela uste dut, gizartea mugituko dutelako". Hamar urte pasata, iragarpenekin asmatu al du?



Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA _____ **5. OR.**

ERRAUSKETARIKEZ.ORG WEBGUNEA _____ **6. OR.**

OSTEGUNEAN, HERRI BATZARRA _____ **7. OR.**

USURBIL FUTBOL TALDEAREN SORRERA _____ **8. OR.**

AGINAGAKO LUDOTEKAN IZAN GARA _____ **11. OR.**

SANTO TOMAS AZOKA, BEGIBISTAN _____ **12. OR.**

SANTUENEA KULTUR ELKARTEA _____ **13. OR.**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



JOXE PIÑAS

Hitz egin ezazue!

Mexikoko lagun bati "Las venas abiertas de America Latina" E.Galeanoren liburua orain dela urte batzuk "prestatura" hartu nion eta eskuetan daukat orain.

Lagunak, liburuaren lehenengo orrialdeetan seilu bat jarri zion: belan Espainiako armadako gurutzea itsatsita galeoi baten irudia eta "5º Centenario del encuentro de dos mundos" esaldia daukan seilua. Zigiluaren data 1988 urtarilekoa da.

Galeano bezala, laguna ez zen isiltzen eta seilu horrekin Amerikan hainbeste indigenak eta nekazariak, umeak, emakumezkoak eta gizonezkoak gogora ekartzen zituen, hainbeste urtetan kolonialismoak eta kolonialistek hiltzen isildu nahi zituzten guzti horiek.

Bostehun urte beranduago, Espainiako enpresa batzuk neolo-kolonialismo ekonomikoa Amerikan inposatu nahian dabilta. Hori dela eta Amerikako hainbeste gobernuak politika honen kontra azaldu dira eta horrela adierazi zuten Txilen ospatutako Iberoamerikako Goi-bileran. Esate baterako Boliviak, Venezuelak eta Nikaraguak, Espainiako enpresa hauen politika gogor kritikatu zuten eta bere garapen ekonomia enpresa hauen menpe ez dutela utziko azpimarratu zuten. Giro honetan Zapatero jaunak gobernu bat ez dela heldua barruko arazoan ardura kanpoko norbaiti leporatzen dizkionean esan zien. Orduan Chavezek bere

herriak 2002. urtean pairatu zuen kolpe militarrean Espainiako garaiko gobernuaren inplikazio zuzena zegoela erantzun zion. Eta momentu horretan historian gordeko den galdera bat utzi zigun errege batek: zergatik ez zara isiltzen? Era berean historiaren oroitazle galdera zen ere ...

Bostehun urte beranduago, nork egon beharko luke isilik? Bere lurraldearen subiranotasuna defendatzen dutenek edo neokolonialismo ekonomikoa alden diharduten politikariek?

Nork egon beharko luke isilik? Herriak hauteskunde batzuen bidez hitz egiteko eta gobernatzeko aukeratu duen pertsonak edo Francok aukeratu duen errege batek?

Zer motako demokrazi heldutasun adibidea eman dezake errege baten tutoretza onartzen duenak?

Erregearen galdera modelo anakroniko baten garrasi beldurtia da. Galdera horrek monarkia eta monarka Historiaren bidetik kanpo daudela islatzen du, herrien historiagileek jada bere hegonia onartzen ez baitute.

Mexikoko laguna, eskuetan daukat zure liburua eta 1988. urteko seiluari begira nago: galeoiaren barrura zure herritarrek salto egin dutela eta mutina dagoela ikusten dut, jada bela aldatu dute eta hortz adarraren koloreko bat jarri dute esaldi honekin: hitz egin ezazue! Historiaren burutza hartu dute.

Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubema - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Joxe Piñas - Unai Agirre

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: abenduak 5. Idatzia ekartzeko azken eguna: azaroak 30.

Lau ez, zortzi fruta eta barazki dende bat egin dute Buruntzaldeko kanpainarekin

Pasa den asteko NOAUA!ko alean Buruntzaldeak fruta eta barazki dendetan euskara bultzatzeko abian jarri duen kanpainaren berri eman genizuen. Baina lau ez, zortzi dira Usurbilen kasuan, ekimenarekin bat egin duten saltokiak. Beraz, barka eragozpenak.

Aliprox-Usurbil, Alkorta Autozerbitzuak, DIA, Foviran, Imanol Txapartegi, Koro Esnaola, Lurdes Frutak eta Otar-Goxo saltokiek parte hartu dute Buruntzaldeak abian jarritako ekimenean. Salerosketak euskalduntzea da helburu nagusia, eta horta-

ra animatu nahi dituzte Usurbil eta Buruntzaldea osatzen duten gainerako bost herrietako merkatariak eta bezeroak.

Lehiaketa zabalik

"Eska itzazu frutak eta barazkiak euskaraz" lemapean eta saltoki horietan euskara bultzatzearekin lotuta, lehiaketa bat antolatu da.

Datorren abenduaren 17ra arte parte hartu dezake, denda hauetako batera jo, eta erosketen truke esku orri bat jasotzen duenak. Paper horretan agertzen den hizki zopa osatu, datu pertsonalekin bete eta dendara itzultzen due-



KANPAINA HONEKIN BATERA LEHIAKETA BAT ANTOLATU DA.

nak abenduaren 18an ospatuko den zozketan parte hartu ahal izango du. Saltoki bakoitzeko bi bezero 50 euroko erosketa bono bana jasoko dute, bertan gastatzeko.

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako adierazpen instituzionala

Ongizatea, Emakumea eta Gizarte Politika Batzorde Informatzaileak azaroaren 20an egindako ez-ohiko bilkuran, aho batez onartu zuen emakumeenganako indarkeriaren aurkako adierazpena instituzionala.

“Beste urte batez, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, Usurbilgo Udalak salaketa egin nahi du eta biolentzia matxistaren aurka lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du, gure udalerrian ere irauten duen gaitza baita.

Jakin badakigu emakumeen kontrako biolentziak kontzientzia kolektibok sakonki errotutako jokabide-eredu soziokultural batean oinarrituta dagoela. Neska eta mutilak gizarteratzeko modu desberdinean du jatorria non eratzten, igortzen, barneratzen eta adierazten diren generoaren rola eta estereotipoak, eta, aldi berean, biolentziaren beraren legitimazio sozial eta kultureko prozesuen bidez indartzen den. Biolentzia hori desagerrarazteko, ahal denik eta azkarren eta nahitaez bereizi behar dugu maskulinitatearen eta feminitatearen zenbait ereduren ikasketa emakumeen kontrako biolentzia erabiltzetik eta/edo legitimatzetik, eta, horretarako, berdintasunerako hezkuntzan, berdintasunean oinarritutako harreman afektibo osasuntsuen sustapenean eta pertsona autonomo, aske eta berdinen garapen integralean oinarritutako irtenbideak planteatu behar ditugu.

Aurten, neska nerabeen kontrako biolentziazko harremanetan jarri nahi dugu arreta, izan ere, sektore hori sarritan ahazten dugu arlo honetan garatzen ditugun ekimenetan. Gainera, azken azterketek erakusten dutenez, biolentzia sexista jasaten duten emakumeak gero eta gazteagoak dira. Biolentzia hori, besteak beste,



EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA SALATZEKO KANPAINAREKIN BAT EGIN ZUEN USURBILGO UDALAK.

beldurraraztearen, eraso fisikoaren edo abusuaren bidez gauzatzen da, baina baita modu finagoen bidez ere, esate baterako, isolamenduaren bidez, txantaje emozionalaren bidez, manipulazioaren bidez, erasoaren bidez, gutxietsiz eta, batez ere, biktima kontrolatuz. Metodo horiek antzematen zailagoak dira neska eta mutil gazteentzat harreman afektiboetan.

Horren guztiaren jakitun, Udal honek konpromisoa hartzen du, bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politika aktibo, oso eta koordinatua garatzeko, arreta berezia jarritz neska gazte eta nerabeen kontrako biolentzian, beraien parte-hartzea aintzat hartuta”.

Hala nola, Usurbilgo Udalak adierazpen honen bitartez Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunean antolatu ziren ekitaldietan parte hartzera gonbidatu zituen herritarrek.

Kale eta toki irristakorrak

Kontseju Zarra kalea irristakorra omen da. Kexa hori heldu da udaletxera. Antza denez, egoera arriskutsuak eman dira. Zerbitzuen udal batzordeak antzeko egoeran dauden beste kale edo tokien berri izan nahi du. Hartara, egoera irristakorrean dauden gune guztiak batera konpontzen hasteko. Beraz, Kontseju Zarra bezala, zorua arriskutsua duen kalerik ezagutzen baduzu, udaletxeari jakinarazi. Telefono zenbakia: 943 37 19 51.



KONTSEJU ZARRA DA IRRISTAKORRA DAGOEN KALEETAKO BAT.

Patxi Azpiroz, kiroldegiko bazkideen ordezkari berria

Patxi Azpiroz izango da kiroldegiko erabiltzaileen ordezkari berria. Datozen lau urteetan, udal kirol patronatuko kide izango da, kiroldegiko bazkideen ordezkari lanetan. Lau urtez behin egiten den bozketa bidez aukeratzen da kiroldegiko erabiltzaileen ordezkaria. Pasa den igandean egin zen bozketara, Patxi Azpiroz izan zen aurkeztu zen bakarra. Patxi Azpiroz baino lehen, Jokin Zubiaur izan zen kiroldegiko erabiltzaileen ordezkaria.



Gipuzkoako Errausketaren Aurrakako Plataformen Koordinadorak web gunea sortu du, errausketarikez.org

Gipuzkoako Errausketaren Aurrakako Plataformen koordinadorak jada bere ataria du sarean. Erreferentziako ataria izango da aurrerantzean, errausketari eta haren alternatibei buruzko informazioa jaso, gaiari buruzko albisteak irakurri edota deialdien berri izateko.

Pauso berri bat eman dute errausketaren aurrakako mugimenduan dabilzan plataformek. Koordinadoratik bultzatu den web gunea martxan da jada. Errausketari eta horren ordezkari alternatibei buruzko xehetasunak, albisteak, deialdiak, gaiari lotutako dokumentuak edota errausketari buruzko beste web gune batzuekin loturak... Hori guztia biltzen du Gipuzkoako Errausketaren Aurrakako Plataformen koordinadorak zabaldu berri duen atariak.

UNAI AGIRRE

“Erraustegiaren aldeko mezuak egunero zabaltzen dira komunikabideetan. Gure mezua, ordea, beti ezkutuan gelditzen da”

Plataformetako lana koordinatu eta hondakin kudeaketari lotutako informazioa edonoren esku jarri nahi dute. “Erraustegiaren aldeko mezuak egunero zabaltzen dira komunikabide nagusietatik. Gure mezua, ordea, beti ezkutuan gelditzen da”, adierazi du Zubietan Lantzeneko kide Unai Agirrek.

Web gunearekin errausketari edota haren alternatibei buruzko zalantzak argitzen laguntzea nahi dute. Errausketaren aurrean, zaborrak gutxitu, berrerabili, konpostatu edota birziklatu daitezkeela alegia. “Errausketa zer den ondo azaldu nahi dugu. Jendeak kaltegarria dela badaki, baina askok ez daki zer alternatiba dauden”, adierazi du Agirrek.



ERRAUSKETARIKEZ.ORG WEBGUNEKO ATARIA HAUXE DA.

Albisteak, deialdiak...

Foto-muntaia batek modu garbian erakusten du non kokatuko litzatekeen erraustegia, zer nolako espazioa beharko lukeen eta horren eragina zenbaterainokoa izan daitekeen.

Hain zuzen, irudiarekin batera, dinamikotasuna eta gaurkotasuna izango dira atariaren ezaugarri nagusietako bi. Alde horretatik, Koordinadoratik eta plataformek antolatzen dituzten ekitaldiak edota haiek egindako deialdiak bilduko dituen agenda dute. Dagoeneko Santo Tomas azokan Donostiako Alde Zaharrean postua jarriko dutela iragartzen da.

Horrekin batera, errausketaren gaiak maiz sortzen ditu albisteak. Horiek ere bere lekua izango dute web gunean. Momentuz, San Markos Mankomunitate osatu berriaren inguruan koordinadorak ateratako komunikatua edota Europako Parlamentuak errausketari buruz onartutako txostena ikusgai dira. “Batez ere, Plan Alternatiboa gizarteratu nahi genuke, izugarrizko lan pila egina baitago”, argitu du Agirrek. Interesa duenak, izan dezala gogoan honako helbidea: www.errausketarikez.org.

ARITZ GORRITI

Webgunearen atal nagusiak

Gure borroka: koordinadoraren alternatiba.

Alternatibak badaude: gutxitu, berrerabili, konpostatu edo birziklatzeko buruzko xehetasunak.

Zer da errausketa: funtzionamendu baldintzak, erraustearen ondorioak.

Loturak: zenbait plataforma edota beste antolakuntzekin.

Berriak: gaiari buruzko albisteak.

Agenda: koordinadorak edo plataformek eginiko deialdiak.

Deskargak: Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko plan gidatzailea, Europar Batasunaren txostena, koordinadoraren komunikatua San Markosen osaera berriaren aurrean...

Harremanetan jarri: koordinadorako ordezkariarekin.

Errausketaren aurkako murala

Potxoenea etxearen atzeko paretean mural bat egingo du Usurbil Bizirik plataformak. Ekimen honen bitartez, errausketari oposizioa eta alternatiben, birziklapenaren eta herri osasuntsuago baten aldeko aldarrikapena islatu nahi dute.

Lehiaketaren oinarriak hauek dira:

Formatua: librea. Bakoitzak bere ideia nahi duen bezala aurkez dezake.

Nola aurkeztu: marrazkiak atzean egilearen izen-abizenak eta telefono zenbakia eduki beharko ditu.

Epea: lanak aurkezteko azken eguna

abenduaren 10a izango da.

Tokia: hiru gune egongo dira lanak aurkezteko:

-Ikastolako sarreran egongo den kaxan.

-Udal liburutegiko sarreran egongo den kaxan.

-Susana Martinen klaseetan egongo den kaxan.

Nori zuzendua: Haur, gazte eta helduak.

Saria: lana herriko pareta batean erreproduzitura ikustea.

Usurbil Bizirik plataformak aditzera eman duenez, murala abenduaren 22an marraztuko dute. Eta muralaren



POTXOENEN PARTE HONETAN
EGINGO DA MURALA.

osaketan ere, nahi duenak parte hartu ahal izango du.

Udal aurrekontuetaz hitz egiteko herri batzarra antolatu du ostegun honetarako EAE-ANVk

Usurbilgo EAE-ANV taldeak jendaurrean aurkeztu nahi du 2008ko udal aurrekontu proposamena. Horretarako, herri batzarra antolatu dute: azaroaren 29an Sutegin.

Herriko eragile eta elkarte ugari jaso dute herri batzarrean parte hartzeko gonbitea. Antza denez, azken asteetan hainbat bilera eta batzar egin dituzte. Biler horietan oinarritu du EAE-ANVk datorren urterako udal aurrekontu proposamena.

Udal gobernuan den alderdiak adierazi duenez, "legegintzaldia nola eta ze proiektuekin hasi nahi dugun zehaztua dugu. Orain hori guztia gure udal aurrekontu proiektuan txertatu dugu. Proiektuarekin aurrera egin baino lehen, eta gainerako alderdi politikoei aurkeztu baino lehen, herri batzarrean aurkeztu nahi dugu iritzia, kritikak, eta ekarpenak jaso ahal izateko, eta bide batez, aurrekontu proiektu parte-hartzaileena eta herriaren nahi eta beharrei hobekien



EAE-ANVK DEITUTA, INDEPENDENTZIAREN ALDEKO MANIFESTAZIOA
EGIN ZEN AURREKO LARUNBATEAN.

erantzungo diena osatu ahal izateko".

**Arratsaldeko 19:00etan,
Sutegiko auditorioan**

EAE-ANVren esanetan, "herri batzar horretan herriko kultur, kirol... elkarteek ere parte-hartzea gustatuko litzaiguke. Izan ere, zuek zarete neurri handi batean herriko

bizitzaren motore eta suspertzaile, eta zuen iritzia eta ekarpena ere jasotzea gustatuko litzaiguke, eta ahal den neurrian, gure proiektuan txertatu".

Horregatik, herriko talde eta eragileei euren ekarpena egitera gonbidatu dituzte. Herri batzarra azaroaren 29an izango da, arratsaldeko 19:00etan, Sutegiko auditorioan.

Usurbil Futbol Taldeko sortzaileak, Haranen oroitzapenak berritzen

Pasa den irailaren amaieran Lehen Garagardo Azoka antolatzen zuten Usurbil Futbol Taldeak. Egun haietan salgai jarri zituzten kamisetek baten baino gehiagoren harridura piztu zuten; futbol jokalariei baten kamiseta simulatuz, “Benantxio 28” izena baitzuen. Orain badakigu zein den horren esanahia. Zenbakiak futbol taldearen sorrera urteari erreferentzia egiten dio. Izenak berriz, bultzatzaileetako bati; Benantxio Otaegiri.

Pasa den azaroaren 17an ez zuten hutsik egin. Hotz handiari aurre eginez, Harane aspaldiko hiru lagunak topalekua izan zen. Bertan bildu ziren eta, Benantxio Otaegi, Antxon Aguaron eta Jose Gomez Salazar, Usurbil Futbol Taldeko sortzaile eta eragile nagusiak. Hirurak elkartzeko unea ere ezin aproposagoa zen, herriko futbolariak etxeko zelaian zuten guztia ematen ari zirenean. Aitzakia berriz, futbol taldekoek egindako guztiagatik adierazi nahi zuten esker ona izan zen. Lehen Garagardo Azokan futbol taldekoek salgai jarritako kamisetak oparitu zituzten. Larunbat iluntzea, garai bateko oroitzapenak berritzeko ere baliatu zuten aspaldiko hiru lagunak.

18.000 pezeta, lehen aurrekontua

Atzo zela dirudi, baina Usurbil Futbol Taldea sortu zenetik, 31 urte igaro dira. 1976an itsasertzean, Usurbildik gertuko hondartzetan hasi zuten haien jarduna. Urrutira jo gabe, Zarautzeko plaiarotetan. Lehen urteetan, futbol talde ibiltaria izan zela esan daiteke. Non entrenatu eta prestaturik izan gabe, inguruko herrietako zelai ugarietan trebatzen baitziren usurbildarrak. Lehenbizi Michelinen. Baina han denbora gutxi egin zuten eta bertatik, besteak beste, Zumaia, Orio edota



PLAIAROTAN JOKATZEN JARRI ZEN MARTXAN USURBIL FUTBOL TALDEA. JASOTAKO LEHEN LAGUNTZA, BERRIZ, 18.000 PEZETAKOA IZAN ZEN.

Loiola aldera joan ziren.

Bi urte pasa ziren, federatu ahal izateko. Gogoan dute, jaso zuten lehen dirulaguntza zenbatekoa zen; 70. hamarkada bukaerako 18.000 pezeta. Aurrekontu harekin moldatu behar ziren urte osoan zehar eta kide bakoitzak ez zuen funtzio konkretu bat. Guztiek denetik egin behar izaten zuten; materiala erostetik kirolariak norgehiagoketara eramateraino. “Baina zer ilusio zuten gaztetxo haiek”, gogoratzen du Salazarrek. Horrek guztia konpentsatzen zien.

Kirola, alternatiba

Ilusioa, garai gogorretan. Testuinguru horretan kokatu nahi dute herriko futbol taldearen sorreraren zergatia. 70. hamarkada amaierara jo behar dugu. Urte latzen hasiera zen, droga mendekotasun kontuei zegokienean. Arazo latz hari aurre egin beharra ikusi zuten, eta alternatiben artean, onena kirola egitea izan zitekeela ondorioztatu zuten. “Arriskua handia zen”, gogoratzen du

Salazarrek. Oso ondo definitzen du Benantxiok futbol taldeak urte hartan izan zuten eginkizuna: “zaintza, osasun eta hezkuntza eskola izan zen”.

ANTXON AGUARON

“Hemen urte askoan ibili zen mutil batek esan zidan: *Antton, eskerrak eman behar dizkizut. Zuri esker ez baitut droga mendekotasunik*”

Gerora, askok eskertu diete haiek egindako lana, baina oso modu berezian gogoratzen dute futbol taldeko kide bat hurbildu zitzaizkion unea. “Hemen urte askoan ibili zen mutil batek esan zidan, Antxon eskerrak eman behar dizkizut. Zuri esker ez baitut droga mendekotasunik. Hori barruraino iritsi zitzaidan”, adierazi du Aguaronek.

Harane futbol zelaia, egonkortasunaren adierazle

Taldeak pauso garrantzitsua eman zuen 1978an; federatu egin zen. Baina zalantza izpirik gabe, herriko futbol taldearen etorkizuna baldintzatu eta bermatu-ko zuen aurrerapausorik handiena 1983an eman zuten. Eskaera eta ikamika ugariren ostean, urte hartan zabaldu baitzen egun Harane izena-ekin ezagutzen dugun zelaia.

“Udolean denak ados zeuden futbol zelaia egin behar zela esaten zenean. Baina ez zetozen bat zelaia izan beharreko kokagunean”, adierazi du Salazarrek. Futbol zelaia zabalik zela, orduan jabetu ziren urte batzuk lehenago hasitako lan gogorrak, dagoeneko fruituak ematen hasi zela.

Zaletuei deialdia

Hiru hamarkada pasatxoko historia hor dago, baina inondik inora ere ez da hor bukatzen futbol taldeari buruz esan daitekeena. Benantxiok,

Salazarrek edota Antxonek hasitakoari beste batzuk eman diote jarraipena. Aurrera begira, zuzendaritzak eta jokalariek egindako lanarekin batera, haiek jasotako babesean kokatzen dute taldearen etorkizuna. “Partidak ikustera jende gehiago etor dadila. Zelaia betetzea oso garrantzitsua litza-teke”, dio Aguaronek.

ANTXON AGUARON

“Gu hasi ginenean baino baliabide gehiago dute. Guk durorik gabe lortu badugu, lehen mailako taldeak errazago lortu beharko luke”

Urte dezentetan, Realeko kideak gonbidatu gisa ekarri izan dituzte; Bakero, De Pedro... Lehen mailako talde baten krisialdiaz hainbeste hitz egiten den garai honetan, ulertezina



1983TIK HONA, HARANE DA FUTBOL TALDEAREN ZELAIA.

egiten zaie aurrera ateratzeko zailtasunak izatea, usurbildarrek herri bateko kluba zer baldintzetan aurrera atera zuten jakinda. “Gu hasi ginenean baino baliabide gehiago dute. Guk durorik gabe lortu badugu, lehen mailako taldeak errazago lortu beharko luke”, adierazi du Aguaronek.

ARITZ GORRITI

Eskerrak laguntzaile guztiei

Aipatu bezala, iraila amaieran Usurbil Futbol Taldeak lehen Garagardo Azoka antolatu zuen. Bertan saldu zituzten kamisetatan kirol taldea martxan jarri zutenak oso gogoan izan zituzten. Detaile hori ez dute ahaztu zuzendaritzako

kide beteranoek. “Oraingo gazteek ere ilusioa dute, eta hala, urte askoan jarrai dezatela. Eskerrak garai hartako erakunde, elkarte eta herri-tarrei”, adierazi du Benantxiok esker onez.

Hain zuzen, ez dituzte ahaztu

nahi hasieran eta ordutik gaur egunera arte, Usurbil Futbol Taldea sortu eta iraunarazten lagundu duten elkarte, talde, boluntario eta herritarrak. “Boluntarioa izan da hemen egindako lana”, gogoratzen du Otaegik.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

txirriStra

KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

 **pintxoak**
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

Santa Zezilia eguna bezperatik ospatu zuen Zumarte Musika Eskolak



Azaroaren 22a musikarien Aeguna da. Baina Zumarte Musika Eskolakoek bezperatik hasi ziren euren egun handia ospatzen. Musika Eskolatik abiatu eta Kale

Nagusian gora igo eta gero, kalez kale ibili ziren kaleak alaitzen. Tartean ziren alboka taldekoak, trikitixa taldekoak eta txistu-talde instrumental taldekoak.

Baigorri aldeko

herri kantuak Sutegin

Ez zen jende asko bildu Jean Louis Lakak eskaini zuen kantaldian, baina bertaratu ziren denak oso gustura entzun zituzten Baigorri aldeko kantuak eta kon-tuak. Nafartarrak elkarteak antola-tu zuen Lakaren saioa.



MAGALI ZUBILLAGA ETA MAITENA
MONAKOREKIN ARITU ZEN KANTARI
JEAN LOUIS LAKA ABESLARIA.

Ostiral honetan hasiko da Aitzagak antolatzen duen mus txapelketa

Ostiral honetan hasiko da Aitzagak antolatzen duen mus txapelketa. Auzitegi Nazionalaren agin-duz Aitzaga elkarte itxita dagoenez, Andatzpe elkarte hasiko da mus txapelketa. Gaueko 22:00etan hasiko da eta bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu.

Ostiral honetan hasi eta 2008ko ekai-naren 6an amaituko da Aitzagako Mus Txapelketa. Guztira zazpi izango dira jokatu diren jardunaldiak. Jardunaldi bakoitzean puntuak banatuko dira eta puntu gehien lortzen dituzten bikoteek sari bereziak jasoko dituzte. Aurtengoa bosgarren edizioa izango da.

Lehen edizioan, Justo eta Angel biko-tea izan zen nagusi. Bigarren edizioan,



GAUEKO 22:00ETAN HASIKO DA
MUS TXAPELKETA ANDATZPE ELKARTEAN.

Igor-Beltza bikotea. Hirugarren edizioan, Troiak eta Olanok osatutako bikotea. Eta iaz, Etxetxok eta Albarok irabazi zuten Aitzagako Mus Txapelketa.

Usurbilgo ezker abertzaleak eskerrak eman nahi dizkie Usurbilgo elkarte ezberdinei, Aitzagaren egoitza itxi zute-netik erakutsi duten elkartasunarengatik.

Aitzaga Mus Txapelketa

NOIZ: Azaroak 30 ostirala.

NON: Andatzpe elkarte.

ORDUA: gaueko 22:00etan.

BIKOTEAK: 20 euro.

Guztira, zazpi jardunaldi.

SARIAK:

Lehen, 2 arkume, mariskoa eta txanpaina.

Bigarren, 4 koneju, txangurroak eta txanpaina.

Hirugarren, 2 koneju eta txangurroak.

Laugarren, 2 koneju eta txangurroak.

ANTOLATZAILEA: Aitzaga Kultur Elkarte.

Aginagako ludoteka, asteburuetan aginagar gaztetxoen topagune

Aginagako ludotekak duela aste gutxi zabaldu ditu ateak, ikasturte berria hasteko. 4-11 urte arteko gaztetxoak biltzen dira bertan larunbat goizero. Aurten, Antxomolantxa Guraso Elkarteak antolatutako ekimenerako monitore berria dute; Erramun Erro usurbildarra.

Leku ederra dute, Aginagako Arrate Zahar Egoitzaren goiko pisuan kokatzen den ludoteka gunean. Egokia, goxoa eta gaztetxoek primeran pasatzeko materialer hornitua. Mahai gune bat marrazteko, oholtza antzerki emanaldiak prestatzeko, filmak ikusteko pantaila... Hori barrian. Baina eguraldiak lagunduta eta antolatutako ekintzen arabera, ezin ahaztu ondoan duten frontoia, eta inguruak.

ERRAMUN ERRO

“Bataz beste, hamar bat haur etortzen dira. Lau urtetik beherakoak gurasoekin egoten dira”

Beraz, larunbat goiza entretenituta pasatzeko aukera ezin hobea da ludoteka zerbitzua. “Helbururik garrantzitsuen, ondo pasatzea da”, adierazi du Erramun Errok. Aurtengo nobedadea monitorea bera da. Ikasturte amaierara arte, usurbildarra larunbat goizero aginagar gaztetxoek aisialdi tartea antolatzeaz arduratuko da.

Parte hartzea ardatz

Asteazken hiru ordu eta erdiz biltzen dira. Orduen arabera, egun bakoitzean parte hartzea aldatzen doa, goizetan katekesia ere izaten baitute Aginagan. Kopurua ere larunbata askotan egokitu daiteke. “Bataz beste, hamar bat haur etortzen dira. Lau urtetik beherakoak gurasoekin egoten dira”, adierazi du Errok. Horrek eragin zuzena du ekintzen antolakuntzan ere. Saioa bitan zatitzea dakar; ekintza



IKASTURTEA AMAITU ARTE, ERRAMUN ERRO IZANGO DA LUDOTEKAKO BEGIRALEA.

txiki bat lehenik eta denak biltzean, goizeko joko nagusia izaten dute. “Oka joko erraldoia, gure txikitako jokoak... izaten ditugu”, adierazi du Errok.

Joko parte hartzaileak eta inizatiba lantzen dituztenak. Modu berekoak dira zailtasun uneak konpontzeko Erramunek erabiltzen dituen baliabideak. “Estrategia oso ona da, egoera bat bideratzeko gaztetxoetako bati, adibidez, gainerakoak isilarazteko eginkizuna jar-

etzea. Hori ere denon arteko lana da”, adierazi du Errok.

Garai batetik hona jolasteko moduak ez direla asko aldatu uste du Erramunek. Horren adibide nagusia, gaurko jolas “izarrak” garai bateko ereduaren finkatuta egotea da. Bai behintzat Aginagan. “Orain txibaren moda da eta denak txibarekin”, adierazi du begiraleak.

ARITZ GORRITI

Elkar ezagutzeko aukera bikaina

Errok eta gurasoek Aginagan Ehorrelako zerbitzu bat martxan jarri izana positibotzat jotzen dute. “Adin tarte bakoitzeko ume bat edo bi daude bakarrik Aginagan. Hona etortzen badira, 4-11 urte artekoak denak batera jolasten badute, elkar ezagutzen eta haien artean zaintzen ikasten dute”, adierazi du Errok. Hain zuzen, ekimenean parte hartzen duten gaztetxo guztiak Aginagan bizi dira. Baina eguneroko bizitzan, ikasketei dagokienez, guztiak ez dabilta Aginagako herri eskolan. Beraz haietaz guztientzat, larunbat goizetako ekimena topagune ederra da.



Sagardo eta babarrun lehiaketak egingo dira Santo Tomas azokan

Egun seinalatua baino astebete lehenago antolatu ohi da Santo Tomas azoka gure artean. Honakoan, abenduaren 16arekin egokituko da Santo Tomas eguneko azoka. Herritarrek eginiko sagardoa dastatu ahal izango dugu. Gainera, bertako ekoizleek egindako babarrunak ikusteko aukera ere izango da. Dagoeneko bi lehiaketak, sagardoarena eta babarrunarena, martxan dira.

Aurten abenduaren 16an igandez ospatuko da Santo Tomaseko festa, NOAUA!k eta Sagardo Egunaren lagunak elkarrekin antolatu ohi duten azoka. Sagardo lehiaketan eta babarrun lehiaketan parte hartu nahi dutenek, ordea, abenduaren 11 baino lehen eman beharko dute izena.

Sagardo lehiaketa

Baserrian edo etxean sagardoa egiten duenak azokara ekar dezake, herritarrek proba dezaten. Nahi duenak, gainera, lehiaketan parte har dezake. Sagardotegiek ordea ezin dute lehiaketa honetan parte hartu.

Partaide bakoitzak (lehiaketan parte hartzen duenak eta ez duenak ere bai) 10 botila sagardo aurkeztu beharko ditu, eta antolatzaileek botila bakoitzeko 2 euro ordainduko dizkiote.

Babarrun lehiaketa

Partehartzaile bakoitzak kg 1 babarrun aurkeztu beharko du. Trukean, kg bakoitzeko 12 euro ordainduko zaizkio.

Babarrun lehiaketan, ezaugarri hauek hartuko dira kontuan:

Itxura: osorik edo hautsita dagoen, zimurrak...

Kolorea: zenbat eta beltzago orduan



ABENDUAREN 16AN EGINGO DA SANTO TOMAS AZOKA USURBILÉN.

eta hobeagoa.

Berdintasuna: tamainaz, kolorez... elkarren berdinak izatea.

Dizdira: berezko dizdira beste edozein produkturekin (olio, abrilantadore...) estali edo aldatua izaten bada lehiaketatik kanpo geratuko da.

Garbitasuna: partikula arrotzik ez izatea.

Informazioa eta epeak

Sagardo zein babarrun lehiaketan izena emateko epea abenduaren 11n amaituko da. Lehiaketan aurkeztuko den babarruna edota sagardoa, ordea, beranduenik abenduaren 13rako eraman beharko da NOAUA!ko egoitzan (Bordaberri 3, behea, kaxkoa).

Baldintzak eta gainontzeko zalantzak argitzeko, deitu NOAUA!ren bulegora 943 360 321.

Sari ederrak

Babarrun zein sagardo lehiaketan, ondorengo sariak izango dira:

Irabazlearentzat, saria: 150eta txapela.

Bigarren geratzen denarentzat: 80eur o.

Hirugarren saria: 50 euro.

Abenduaren 8an, odol-emaileen bazkaria

Ohikoa den bezala, abenduaren 8an Usurbilgo Odol Emaileen Elkartekoek urte bukarako bazkaria egingo dute. Zendutako odol emaileak gogora ekarriko dituzte lehenbizi eta gero Atxega jauregian bilduko dira. Bertaratu nahi duenak, elkarteko ordezkariekin jar dadila harremanetan:

Patxi	615 760 458
Agustina	943 363 102
Kattalin	943 362 139
Maite	943 366 040

Txartelak 30 euro balio du. Bertaratu nahi duenak, azaroaren bukaerarako dei dezala izena emateko.

Jende ugari

transgenikoen hitzaldian

Interesa piztu zuen Aitzaga Kultur Elkartek transgeniko-
ei buruz antolatutako hitzaldiak. Hizketan Jon Harluxet Bio-Akitaniako presidentea eta Enrike Gisasola biologoa eta artzaina aritu ziren.



teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
☎ 943 69 68 52 · 620 800 186

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Ojandegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Santuenea Kultur Elkartean ekitaldi ugari izango dira datozen egunetan

Urtea amaitu baino lehen, ekitaldi ugari bideratuko ditu Santuenea Kultur Elkarteak. Ipuin kontaketa, makilaje ikastaroa, gabon kanten inguruko tailerra... Gabonak ere gainean ditugu eta jaiotza lehiaketa ere iragarri dute.

Jaiotza lehiaketan, 13 urte edo urte gutxiago dituzten hurrek bakarrik har dezakete parte. Hauek dira bete beharreko baldintzak:

- Egilea usurbildarra izatea.
- Jaiotza hauek egiteko materialak norberak jarri beharko ditu.
- Lana lehiaketan parte hartzen duenak aukeraturiko edozein materialarekin egin daiteke.
- Lanak aurkezteko epea abenduaren 20n amaituko da. Santuenea 16ko ludotekan aurkeztu beharko dira lanak, arratsaldean.
- Epai-mahaia: aurkeztutako lan denak erakusketan jarriko dira Santuenea elkartearen egoitzan. Abenduaren 21ean eta elkartearen egoitzara bertaratzen direnek orri bat bete beharko dute. Puntu gehien lortzen duen jaiotza izango da irabazle. Abenduaren 21ean bertan jakinaraziko da irabazlearen izena (emaitza



ABENDUAREN 20A, JAIOTZA LEHIAKETAKO LANAK AURKEZTEKO AZKEN EGUNA.

NOAUA! aldizkarian emango da aditza).

- Lanen jabetza: lehendabizi, bigarren eta hirugarren geratu direnen lanak Santuenea Kultur Elkartearen esku geratuko dira. Gainontzeko lanak itzuli egingo dira.

-Sariak hauek izango dira: lehen saria 100 euro eta "oleoa" pintatzeko kutxatxoak.

-Bigarren saria, 50eur o eta "oleoa" pintatzeko kutxatxoak.

-Hirugarren saria, 50 euro.

Argibide gehiagorako deitu honako telefono zenbakira: 943 367 262.

Jaiotzen lehiaketa udalaren babesarekin antolatu du Santuenea Kultur Elkarteak.

Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa

A benduaren 7an ostirala, Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria Santueneko kultur elkartearen egoitzara hurbilduko da. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da hurrei zuzendutako ipuin kontaketa.

"Zakur bat ezkutaturik"

Klown ikuskizuna

A benduaren 8an larunbata, "Zakur bat ezkutaturik" ikuskizuna antolatu da Santueneko elkartearen egoitzan. Arratsaldeko 19:30ean hasiko da klown ikuskizuna eta sarrera doan izango da.

Makilaje tailerra

gazteentzat

A benduaren 10ean astelehena hasiko da Santuenea elkarteak antolatu duen makilaje tailerra. Arratsaldeko 17:00etan hasi eta beste lau egunez luzatuko da ikastaroa. Mirari Iturrino profesionalak eskainiko du ikastaroa. Prezioa: 10 euro. Izena emateko honako telefono zenbakietara deitu: 943367262 edo 943365031. Abenduaren 5ean amaituko da izena emateko epea.

Gazteentzat olerki lehiaketa

Udalaren babesarekin antolatu den lehiaketa honetan, 14 urtetik 20 urte bitarteko edonork har dezake parte. Bete beharreko baldintzak hauek dira.

- a) Egilea usurbildarra izatea.
- b) Lanak euskaraz idatziak egotea.
- c) Lanek originalak eta argitaraga-beak izan behar dute.
- d) Gaia "Aiton amonak" izango da.
- e) Partaide bakoitzak lan bat aurkeztuko du.

Lanak nola eta non aurkeztu:

a) Aparteko orri batean eta lanari grapatuta, datu hauek adieraziko dira: lanaren izenburua, egilearen izen-abizenak, jaiotako urtea, adina, helbidea, telefonoa, ikastetxea eta maila.

b) Lan bakoitzak egile bakarra izango du.

c) Lana ordenadorez idatzia aurkeztuko da.

d) Lanak Santuenea elkartearen egoitzara eraman beharko dira, abenduaren 21ean, arratsaldeko 17:00etatik 20:00ak bitartean.

duaren 21ean, arratsaldeko 17:00etatik 20:00ak bitartean.

4- Olerkiaren neurria Arial 12 formatua.

5.-Prosaren neurriak: Gutxienez 5 eta gehienez 8 orrialde arteko lana.

6.- Lanak aurkezteko epea: 2007ko abenduaren 21a.

7.- Sari bakarria ordenagailu portatila izango da.

8.- Epaimahaia Udarregi ikastola-ko irakasle taldeak osatuko du.

Argibide gehiago: 943367262.

Aranerreka aldera, hostoak biltzera

Kaixo! Aurreko astean, udazkeneko irteera egin genuen Haur Hezkuntzako haur guztiak. Hotz handia egiten zuen eta txamarrak ondo-ondo lotuta Aranerreka aldera joan ginen hostoak biltzera. Udazkeneko abestiak ere abestu genituen.

Hona hemen abestu genuen horietako bat.

UDAZKEN GOIZ BATEAN
BASORA NINDOALA
HAIZEA ZUHAITZETAN
LAPURTZEN ZEBILEN
HAMAR HOSTO AIREAN
BESTE ZAZPI LURREAN
HANTXE IBILI GINEN
HOSTO DENAK ZAPALTZEN
ZIRRI ZIRRI ZART
ZIRRI ZIRRI ZART
HANTXE IBILI GINEN
ZIRRI ZIRRI ZART
ZIRRI ZIRRI ZART
HOSTO DENAK ZAPALTZEN

Primeran ibili ginen. Espero dugu hurrengoan ere berriz joango garela!

HHko ikasleak



HARU HEZKUNTZAKO IKASLE ETA IRAKASLEEK ARANERREKARA
EGINDAKO IRTEERAN ATERATAKO IRUDIA.
HOSTOAK BILTZERA JOAN ZIREN.

Sabel dantza ikastaroa, Guraso Eskolak antolatuta

Abendutik aurrera, sabel dantza ikastaro berri bat martxan jartzea erabaki du Guraso Eskolak.

Ikastaroa Bake Epaitegi atzeko aretoan eskainiko da, astelehenetan arratsaldeko 18:00etatik 19:30ak arte. Animatzen direnak abendua baino lehenago izena eman beharko dute ondorengo telefono zenbakian: 615006535 (Ana).

0-3 urteko haurren gurasoentzat hitzaldia

Oinarriak Eraikiz Haur Eskolako guraso elkarteak hainbat hitzaldi antolatu ditu.

Jon Perez de Arriluzea psikomotrizitatean aditua da eta Haur Eskolara hurbilduko da azaroaren 29an.

0-3 urte bitartean, haurrek igarotzen dituzten fase desberdinei buruz mintzatuko da. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da hitzaldia. Informazio gehiago: 943 374 061.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

ANTXETA taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak



EGUZKITZA, 4 USURBIL • 943 370 344

Usurbildarrak Donostiako maratoian

Maratoia. 42 kilometro eta 195 metro. Distantzia hori egin behar izan zuten pasa den igandean Donostiako 30. maratoian parte hartu zuten korrikalariak. Goizeko 9.00etan irten ziren Anoetako estadiotik 2 graduko hotz-beroarekin, baina hortik aurrera berotzeko adina denbora izan zuten. Guztira 2.357 lasterkari irten ziren hasiera puntutik eta bertan ziren usurbildarrak ere.

Urtetik urtera gehiago dira honelako proba luzea egitera ausartzen diren herritarrek. Aurtengo edizioan 11 izan dira lasterketa amaitzea lortu dutenak. Jon Carbayadak lortu zuen denborarik onena, 13. postuan iritsi baitzen Anoetako helmugara 2 ordu 30 minutu eta 42 segundoko denbora eginez. Emakumezkoei dagokionez, Ana Alzugarai izan zen igandeko maratoian usurbildar bakarra. Hauexek dira antolatzaileen webgunetik hartutako herriko korrikalariak egindako denborak:

Jon Carbayeda Etxeberria-Berreyarza	02:30:42
Koldo Lertxundi Azkue	02:52:58
Jon Tapia Lizarraga	02:55:20
Gorka Lasa Azpiazu	02:55:48
Francisco J. Rabano Rubio	03:15:41
Iban Maritxalar Elizondo	03:25:03
Mikel Artola Azkue	03:36:21
Juan Mari Agote Goiaran	03:26:42
Pello Sasiain Martinez	03:28:42
Ana Alzugarai Garcia	03:32:06
Patxi Pagola Goldarazena	03:32:28

JOSU ARANBERRI



URTETIK URTERA, GEHIAGO DIRA PROBA LUZE HAU EGITERA ANIMATZEN DIREN HERRITARRAK.

Hiru eskubaloi partida Oiardo kiroldegian

Usurbil Kirol Elkarteko hiru eskubaloi talderen partidak izango dira asteburu honetan Oiardo kiroldegian. Lehen Territorial mailako taldeak Pasaiaiko Donibane Majestik taldearen aurka jokatu du. Azken bi neurketak galdu ondoren goiko postuetatik aldentzen ari dira eta hiru puntu gehiagorekin hirugarren postuan kokatuta dagoen taldea gainditzea ezinbestekoa izango da gorantz egiten hasteko.

Jubenil mailako mutilen taldeak, aldiz, Leizaran eskubaloi taldea izango du aurrez aurre eta kadete mailako nesken taldeak Aiala Zarautz eskubaloi taldea.

Erregional mailako bi taldeak Haranen

Erregional mailako bi taldeen norgehiagokak jokatu-ko dira asteburu honetan Harane futbol zelaian. 2. mailako taldeak larunbatean arratsaldeko 15.30ean jokatu du Lasarte-Oriako Ostadar liderraren aurka. Igandean, berriz, 1. mailako taldearen txanda izango da. 16.30ean hasita irungo Mariño taldea izango dute aurrez aurre. Emakumezkoen taldeak Azpeitian jokatu du larunbatean arratsaldeko 15.30ean Lagun Onak taldearen aurka. Azkenik, kadeteek Intxaurrendon izango dute partida larunbat goizean.

ETXEBIZITZA

- Hiru logelatako etxe baten bila gabilta Usurbilen. Agentziarik ez. 616064059.
- Etxea salgai Kale Nagusian. 90 m. Igogailua, garajea, trasteroa. Telefonoa: 943 36 13 83.
- Pisu bat salgai. Santuenea auzoan, 16 zenbakia 4. pisua, 33 milioitan (negoziagarria). Interesatuak: 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- Hiru logelatako etxe bat salgai, kaxkoan. Igogailua, ganbara eta balkoiduna. 655 72 06 66.
- Pisua alokatuko nuke Usurbilen. Telefono zenbakia: 943 36 02 45 / 661 702 708.
- Salgai. Kaxkoan, 3 logelako etxea trastero-arekin. Garajea aukeran. 685731792
- Bi gela edo gela bateko apartamentu baten bila nabil Usurbilen. 687 650 066 (Maria).

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxia salgai Etxe Zurin. 14 metro karratukoa, entreplantarekin. Prezioa: 15.000 euro. 646 717 676.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Moto bat saltzeko, Richoo RR beltza, 49 cm3. 649 302 733 (David). Ondo zaindua, "extra" asko.
- Estrenatu gabeko Aprilia Scoter SR 50 motoa saltzen dut. 649 356 081.

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- LH edota DBHko ikasleei klase partikularak emateko prest egongo al zinateke? Udarregi ikastolan, lan hori beteko luke-

ten pertsonekin zerrenda bat osatzen ari gara. Interesatuak pasa Ikastolako zuzendaritzatik.

- Ingelera emango duen irakasle bat behar da Zubietan, astean behin edo bitan klaseak emateko. 943 36 07 59 (Pello).
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarteke umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. Irailetik aurrera hasteko. 627278907.
- Urte osoz, astebukaeratan lan egiteko zerbitzari baten bila gabilta. 943366710.

Lan-eskaerak

- Etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 636934237.
- Etxeko lanak egiteko emakumea eskaintzen da. Goizez edo arratsaldean lan egiteko prest. Deitu: 679 79 61 01.
- Emakume euskaldun bat eskaintzen da, egunero lauzpabost ordu lan egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 687348223.
- Pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 677343326
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906
- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. Telefono zenbakia: 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskaierak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporrak, ospakizunak, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. Telefono zenbakia: 943555835/ 617 242 660.
- Etxeko lanak egin, pertsona helduak zain-

du edo jatetxe batean lan egiteko prest nago. 610 669 335.

- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620 646 769.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Azaroaren 18an Decathlon markako patinete bat ahaztu zitzaigun Artzabalgo parkean (edo inguruan). Eskertuko genuke aurkitu duenak telefono honetara deituko balu: 685761079
- Zilar edo urre zuriko lepoko bat topatu genuen uda partean eta udaltzaingoa utzi dugu. Galdu duenak han galde.
- Kotxeko aulkitxoa salgai. Maxi Cosi Priori XP. 110 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Egurrezko aulkiak salgai. Aritz egurrez eginikoak. 943 36 20 49.
- Lur zatitxo bat hartuko nuke, baratz txiki bat osatzeko. 615744076.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Benelli repetidora salgai 600 euro. 645 735750.
- Mercedes Vito Mixta 112 CDI bat saltzen dut. Aire egokitua, kristal tintatuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa... Dena hornitua, 610 431 999.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.
- Snow egiteko tabla bat fizioekin salgai. Tf: 679 185 102.
- Argazki zaharrak beritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



Zorionak Aiora!
Abenduaren 4an beteko duzu zure

lehengo urtebetzea.
Txokolatezko muxu bat etxeko guztien partez.



Zorionak Oihane!
Abenduaren 1ean egingo dituzu

11 urte. Zorionak eta muxu potolo bat aitaren partez eta ea egun polit bat pasatzen dugun.



Zorionak Amaia!
4 urte egin dituzu aste honetan eta etxekoak

ez dugu ahaztu.
Muxu potolo bat eta Zorionak!

JAIOTZAK

Izaro Lopez Errondosoro
Azaroaren 16an.

HERIOTZAK

Vicente Iranzo Peris
Azaroaren 25ean hil zen 52 urterekin.



JATETXEA - TABERNA
BELARTZA

943 37 60 82

Euskal sukaldaritza tradizionala
Eguneroko menuak eta
larunbatetan menu bereziak

- Neurrira eginiko menuak
- Plater konbinatuak, otartekosak eta razioak
- Aire egokitua eta aparkalekua
- Atsedeen egunak: larunbata gau eta igandea

Poligono Belartza • Gurutzegi kalea, 15 • A4 Pabiloia • Donostia

639 653 480

GARRAIOAK
Txema Azurmendi
kamioi-garabia

Otar-Goxo
Elizaguiak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Agenda !!

Azaroak 29 osteguna

- Herri Batzarra, EAE-ANV deituta.
Gaia: 2008ko udal aurrekontuak.
19:00etan Sutegin.

Azaroak 30 ostirala

- Aitzaga Elkartearen Mus Txapelketa. 22:00etan Andatzpe elkartean. Bikote bakoitzak 20 euro.

Abenduak 7 ostirala

- Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria Santuenea elkartean. Haurrei zuzendutako saioa, 18:00etan.

Abenduak 8 larunbata

- Usurbilgo Odol Emaileen Elkartearen bazkaria Atxega jauregian.
- "Zakur bat ezkutaturik" klown ikuskizuna Santuenea elkartean, 19:30ean.

2008ko mendiko aseguria egiteko garaia heldu da

Mendiko aseguria egiteko bi aukera eskaintzen ditu Andatza Mendi Elkartek: Asteartero, udaletxe ondoan duten egoitzara hurbildu. Edo bestela, abenduan egingo den Mendi Astera gurturatu.

Asteartero, iluntzeko 20:30ean biltzen dira Andatzakoak, DYAK udaletxe ondoan duen egoitzaren azpian.

Bestela, Mendi Asteak irauten duen bitartean atera daiteke mendiko aseguria. Abenduaren 10ean hasi eta abenduaren 14an amaituko da Mendi Astea. Egun horietan, ilun-



ANDATZAREN EGOITZAN EDO MENDI ASTEAN IZANGO DA MENDIKO ASEGURUA EGITEKO AUKERA.

tzeko 19:00etatik aurrera, Sutegin izango da aseguria egiteko aukera.

Informazio gehiago eskuratu nahi duenak, hemen du elkartearen e-posta: andatzake@usurbil.com

KzGuneko ikastaroak

INTERNET IKASTAROA

Abenduak 10 - abenduak 21
(Auzo-laneko lorezaintza taldekoei eskainia). 9:00-11:00.

LORTU ZURE IT TXARTELA

Abenduak 5 asteazkena.
9:00etatik 11:00etara.

MINTEGIAK

Justizia ezagutu (euskaraz)
Abenduak 3, 11:00-12:00.

Abenduan: 9.00-13.00,
astelehenetik ostiralera.
Tel: 943 36 14 12

Eguneko goardiako farmaziak

Azaroak 29, osteguna

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Azaroak 30, ostirala

Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte

Abenduak 1, larunbata

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil

Abenduak 2, igandea

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Abenduak 3, astelehena

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Abenduak 4, asteartea

De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Abenduak 5, asteazkena

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abenduak 6, osteguna

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Abenduak 7, ostirala

Gil, Nagusia 24 Lasarte

Abenduak 8, larunbata

De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Abenduak 9, igandea

De Miguel, Nagusia32 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

J. Etxebeste Farmazia (22:00-09:00)

Elkano 2 kalea, Hernani 943 55 20 87

2007ko egutegia noaua.com webgunean

ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK


Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

URDAINTZI S.L.
oraikuntza

943 51 67 26 4
649 435 475
649 435 476

JOSUE
ARANZAZISTROKI
IGELTSERITZA
eta
PINTURA

Juan Jose enca, 6 Kalegar
Telf: 606 37 21 05



Oparitu euskaraz

Orotara, euskarazko produktuen 260.000 katalogo inguru banatuko dituzte Gipuzkoan, Bizkaian, Araban, Nafarroan eta Lapurdin

Gabonak iristear dira eta urte sasoi honetan egin eta jaso izan ohi dira opari gehien, etxean haurrak daudenean, batez ere. Zer oparitu? Zein adinetarako da egokia halako jostailua? Zer oparitu dezakegu euskaraz? Inoiz baino gehiago gurasoek euren buruari behin eta berriz egiten dioten galderak dira. Kezka horri irtenbidea emate aldera, kalean da Euskarazko 2007-2008 Produktuen Katalogoa.

Jada eskuartean ez baduzue, datozen egunetan jasoko duzue 16 urte arteko haur eta gazteentzako Euskarazko Produktuen Katalogoa. Dauden guztiak dira baina diren guztiak ez egon arren. Liburuxkan, euskaraz argitaratzen diren produktu berrienak eta hauen inguruko informazioa –argitaletxea, prezio tartea, zein adin tarterako den egokia, eta abar– jaso dituzte, etxeko haur eta gaztetxoek euskaraz jolasteko, irakurtzeko eta gozatzeko aukera izan dezaten.

Euskal Herri osoan 260.000 ale banatuko dituzte ikastetxe nahiz etxeetako postontzietan. Aurten, gainera, Lapurdin ere banatuko dituzte lehendabizikoz.

Zortzi atal

Euskarazko produkzioa areagotzen joan den heinean, zerbitzuaren eskaintza ere handitzen joan da. Hortaz, aukera zabala ematen du egunotan argitaratu duten liburuxkak, euskarazko aisia produktuei dagokionez. Katalogoaren edukia zortzi ataletan banatu dituzte: musika, informatika, bideoak, DVDak, liburuak, komikiak, jostailuak eta jokoak eta aldizkariak.

Aurreko urteetatik katalogoa ezagutzen duzuenok, bi berrikuntza nabarmen aurkituko dituzue ohiko informazioarekin batera. Batetik, gurasoentzako atala osatu dute eta haur txikiekin batera erabiltzeko materiala aurki daiteke. Bestetik, komikien atalak aparteko tartea hartu du katalogoan.

Arestian aipatu bezala, liburuxkan ez dira euskarazko produktu guztiak agertzen baina erreferentzi gisa balio du.



ESKOLAZ KANPO, AISIAN ERE EUSKARAZ HITZ EGITEKO AUKERA IZATEA

EZINBESTEKOA DA HAURENTZAT, BAITA EUSKARARENTZAT ERE.

Liburuxkaren prestaketan eta produktuen aukeraketan herrialde desberdinetako euskara teknikariek hartu dute parte, hots, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Lapurdikoak, azken hauek lehendabizikoz.

Buruntzaldeko liburu dendetan

Euskarazko Produktuen Katalogoan agertzen diren produktuak Buruntzaldeko edozein liburu dendetan daude eskuragarri. Dendariek eskaintza erosleentzat prest izan dezaten, aldezturik jasotzen dituzte katalogoak.

Katalogoan agertzen diren produktuak adin tarteka sailkatuak daude eta bertan agertzen den salneurria orientagarria dela azpimarratu behar da, prezio zehatzak agertu beharrean, prezio tartea jarri baitituzte, hots, produktuak lau prezio tarteetan arabera daude sailkatuak.

Paperean eta Interneten

Arestian katalogoaren 260.000 ale banatuko direla Euskal Herrian aipatu badugu, Interneten ere ikusgai jarri dute la esan behar da. Produktuen eskaintza kontsultatzeko, www.katalogoa.org web atarian sartu besterik ez dago.

Nobedadeak: gurasoentzako atala eta komikiena

Gurasoentzako atalean haur txikiekin batera erabiltzeko materiala bildu dute. Komikiek berriz, aparteko tartea hartu dute aurtengo katalogoan.





2007-2008
euskarazko
produktuen katalogoa

www.katalogoa.org

Santo **Tomas** eguna

dastaketak,
lehiaketak,
azoka...

Abenduaren 16an, lehenengo eguna da, bertan ematen da
lehenengo azoka. Abenduaren 16an, lehenengo
eguna da, bertan ematen da.



Abenduaren
igandegoizez **16an**

